


2

EMAKUME ETA GIZONEN GIZA ESKUBIDEAK  
DERECHOS HUMANOS DE MUJERES Y HOMBRESBAKOITZARI BERE A  
CADA CUAL LO SUYO

Zuen ustez, zein giza eskubide dira egokiak pertsona hauentzat? Lotu ezazue esaldi bakoitza bi marrazkirekin marren bidez.

En vuestra opinión, ¿qué derechos humanos son adecuados para estas personas? Unid cada frase con dos dibujos mediante líneas.



1. Gizon eta emakume guztiak aske dira jaiotzez eta berdinak duintasunez eta eskubidez.

1. Todos los seres humanos nacen libres e iguales en dignidad y derechos.



2. Inongo sexuzko, arrazako... bereizkuntzarik gabe.

2. Sin distinción alguna de sexo, raza....

3. Gizabanako orok badu bizitzarako, askatasunerako eta bere buruaren segurtasunerako eskubidea.

3. Todo individuo tiene derecho a la vida, la libertad y la seguridad de su persona.

4. Ez da inor jarriko esklabotasun edo morrontzapean.

4. Nadie será sometido a esclavitud ni servidumbre.

5. Ez da inor torturapean ezarriko, ez zigorrik ez tratu anker, edo krudelik hari emango.

5. Nadie será sometido a torturas ni a penas ni tratos crueles.

16. Gizonezko eta emakumezko orok du eskubide ezkontzeko eta familia bat eratzeko, eta eskubide berberak izango dituzte, bai ezkontzak diraun bitartean bai ezkontza deseginez gero ere.


16. Los hombres y las mujeres tienen derecho a casarse y fundar una familia, y disfrutarán de iguales derechos, durante el matrimonio y en caso de disolución del matrimonio.

23. Pertsona orok du lan egiteko eskubidea, lana askatasunez aukeratzeko, lan-baldintza bidezkoak eta langabeziaren kontra babestua izateko.

23. Toda persona tiene derecho al trabajo, a la libre elección de su trabajo, a condiciones equitativas y a protección contra el desempleo.

24. Pertsona orok du atsedenarako eta entretenimendurako eskubidea.


24. Toda persona tiene derecho al descanso y al disfrute de tiempo libre.



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJERErakunde Autonomiaduna  
EUSKO JAURLARITZA Organismo Autónomo  
GOBIERNO VASCO

Familia estimatua:



Bigarren unitate didaktikoan **Mutilen oka** eta **Nesken oka** ezagutu dituzue. Hau da, ohizko genero ereduak emakumeentzat eta gizonentzat proposatzen dituzten bizitza ibilbide ezberdinak. Bi bizi-bide hauek erantzukizun ezberdinak erakutsi eta lan ezberdinak egiteko gaitasuna ematen dute ("laranja-erdiak, pertsona-erdiak egiten dituzte), eta baliabide ezberdinak ematen dituzte, orokorrean bizitzarako eta zehazki bikote-harremanetarako (ezberdintasuna, menpekotasuna eta tratu txarrerako arriskua).

Hirugarren unitatean, **Berdintasunaren Oka** proposatzen dizuegu jolas hain injustu eta arriskutsuaren orde. Nahiz neska nahiz mutilentzat den bizitza ibilbide honek aurreko bi ereduak osagarriak ditu. Helburua hau da: bai neskek eta bai mutilek, pertsona garatu osoak izateko, bizitzaren esparru guztietan autonomia pertsonak izateko eta, bizitzan nahiz bikote harremanetan, berdinen arteko harremanak eraikitzeko gaitasuna lortzeko beharrezko ikasketa izan dezatela.

Bizitzarako hautabide hau bat dator Nazio Batuek eginiko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalarekin. Honen oinarri eta printzipio nagusia, bakea (tratu onak) lortzeko helburua duena, berdintasuna baita, pertsona ororen, emakume eta gizon ororen, duintasun, askatasun eta eskubide berdinen aitortpena.

Berdintasuna da gakoa.


ANIZTASUNA  
DIVERSIDADUNIDAD  
DIDÁCTICA

3

UNITATE  
DIDAKTIKOAIZENA  
NOMBRE

Estimada Familia:

En la segunda unidad didáctica habéis conocido la **Oca de las chicas** y la **Oca de los chicos**. Es decir, el recorrido vital que los modelos tradicionales de género proponen para mujeres y hombres. Estos **dos recorridos vitales** enseñan diferentes responsabilidades y capacitan para diferentes labores (hacen "medias naranjas", medias personas), y dan diferentes recursos para la vida en general y las relaciones de pareja en particular (desigualdad, dominio, dependencia y riesgo de maltrato).



En la tercera unidad didáctica os proponemos **La Oca de la Igualdad** como alternativa a este juego tan injusto y peligroso. Se trata de un recorrido vital, tanto para chicas como para chicos, en el que se incluyen elementos de los dos modelos anteriores. El objetivo es que unas y otros tengan los aprendizajes necesarios para desarrollarse integralmente como personas completas, para vivir como personas autónomas en todos los aspectos de la vida, y para establecer relaciones de igualdad en la vida en general y en la pareja en particular.

Es una alternativa vital acorde la Declaración Universal de **Derechos Humanos** de la ONU. Su base y principio fundamental es el reconocimiento de la igualdad de dignidad, derechos y libertades para todas las personas, mujeres y hombres, con el fin de conseguir la paz (los buenos tratos).

Es cuestión de igualdad.

